Hamar urteko jardunaldiak: Ezagunetik ezezagunera

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

1. HASIERAKO JAKIN-MINETIK ORAINGO EKOIZPENERA

Giroa aldatu egin da, orduko egunkarietan piperra baino pipermina bilatzen zan, gaza baino garratza.

1.1. Lehenengo jardunaldiak

"*Min daukanak ai egiten dau"* dinoan atsotitza, Maria Arrietarena, jarri geinkean hasieran; ostean, orduko *ai!* langai bihurtu da eta emaitzak erakusgarri dira: 10 Jardunaldi; 8 Euskalingua; Ateka aztergaiak; Izaro bilduma. Jardunaldietako 60 hizlari; Euskalinguako 50 txostengile; 514 entzuleetarik 264 emakumezko eta 250 gizonezko. Beti be, kideen euskaltzaletasuna ardatz dala eta erakundeak lagun.

Urteotan, gaur omentzen dogun Imanol Berriatuaren mezua hartu izan da sakoneko ikurtzat:

"Nahi izan! Horrela, gurea izango da beti euskara. Eta, euskararekin batera, beste guztia. Nahi izan, gura izan! Hortxe dago gakoa. Gako horrek dena ireki ahal du. Dena! Gure bihotzetako sarrailak, gure etsaien morroiloak, gure ametsen kutxatilak. Dena!". (Berriatua: 1982)

Idazten genduan, orduan 1997an –hau da 1. Jardunaldien atarian ze, Mendebalde deituko zan euskaltzaleen taldea 1993ko martiaren 12an jarri zan abian–: *Mendebalde Kultura Alkartekook bosgarren urtera heldu garanean, pentsau dogu, gure solasak, gure ikasteak ez dauela luzaroago ezkutuan iraun behar eta plazara urten dogu. Plazan, jendetzaren bila be ez gara ibili, haziz doan landareari haize handi eta indartsuak baino mendebal bare eta zirimiritsuak hobeto jatorkoz sustraietarako-eta.*

Uste dogu bizkaieraren lurretan bizi dan euskaldunak kontzientzia sendoa hartu dauela bere berbakeraz eta ez deritxola zuzen euskera batuan egunero darabilen euskalkiaren presentzia horren urria izateari; zuzen ez deritxon moduan euskera estandarra eraikitzeak norbere berbakera ez lantzea ekarteari.

Beste hau be esaten genduan orduan –eta dinogu gaur– *Areto honetara hurreratu zarien guztioi eskerrak emoten deutsueguz, orain entzule, eretxi emoile zaituegulako eta geroan, seguru asko, Mendebaldean euskeraren zereginetan lankide. Lino Akesolok idatzi eban: "Honen txikia izan gure hauzotxua, eta, zer ete dogu alkar hain gitxi ezagutzeko?"* (Akesolo: 1962). *Hemen daukazue Mendebalde, eztabaidarako foro, auzolanerako gune eta bizkaieraren lurraldean bizi garan euskaldunon topaleku. Bakarrean hemengo guztiok nor garala badakigu eta alkartuta askoz gehiago.*

1.2. Aurtengo jardunaldiak

Orduan legez gaur, Mendebalde Kultura Alkarteko kideok ezagutzen dogu euskeraren gaixotasuna zein dan eta sasi guztien ganetik eta laino guztien azpitik sendabidea aurkitzen ahalegindu gara, nahiz eta gai izan ez behar dan botikea topetako. Halan da guzti, David P. Ausubelek-eta jartzen deuskuen adibidea aintzat hartu ezkero, balio handiko dala probatuko geunke:

Tuberkulosiaren kausa mikroorganismo bat zala jakitearekin ez ziran berehalakoan ez sendaketa, ezta prebentzino bideak erdietsi, baina horrek txertoekin saioak egitea ahalbideratu eban, baita antisepsia, kuarentena, kimioterapiak zeinek beste gaixo kutsakor batzuetan garaipena ekarria eben. Ausubel (1993: 28)

Euskeraren ahuleziak hizkuntza gitxitu guztienak dira, berbeta nagusiren baten menpean bizi diranenak. Gure gazteak eta ez hain gazteak euskera ondo jakinda erderaz zelan bizi leitekezan ulertzeko, batez bere, erderak eta euskerak gizartean daben ospe desbardinera jo behar dogu arrazoi bila, erabilten dan euskeraren kalidadera –corpusera– baino gehiago.

Badakigu, ondorioz, erdera nagusitzen dan giroetan hizkuntza pobrezia agirikoa dala. Ostera, hiztuna erkidego trinkoko eta osasuntsuko partaide danean, berbeta jatorra erabiltea dala berezkoa, eguzkiz eguzki baserrietan edo arrantzaleen artean bizi diranenaren modukoa.

Edozelan bere, estatusari estatusarena emonik eta Caesarri caesarrena, oinarrian erabagi garrantzitsua topatzen dogu, hau da, euskera nahi dogun biziteko edo nahi dogun zenbait funtzino betetako eta gero gainerakoak beste hizkuntzaren baten egingo ete ditugun, berba baten, euskal elebidun –erderak ondo jakinik euskeraz bizi– izan gura dogun ala erdal elebidun –euskeraz jakin, baina erderaz bizi–.

Mendebalde Kultura Alkarteak –dagokion neurrian eta zuzendari dituala: Alfonso Irigoien, Juan Luis Goikoetxea, Maribi Unamuno eta Estibalitz Izagirre– beharrizan horreei erantzuteko ahalegina egin dau hamar urteotan, iragarri be horixe iragarri genduan lehen Jardunaldietako liburuan-eta.

Halan idatzi genduan: Elkartearen helburuak hauek izango dira:

a. Euskal hizkuntzaz bere osotasunean, eta bereziki euskera batuari Euskal Herriko Mendebaldeko euskerak, bizkaiera izenaz ezagutzen danak, eskaini leikeon ondarea ikertzea eta bultzatzea.

b. Mendebaldeko euskeraren corpusa eta estatusa jagon, landu eta bultzatzea be hartu eban helburutzat, normalizatze bidean Jazinto Iturbe deklinabide gaietarako buru dala eta aditzerako Adolfo Arejita.

"Ahal danean dana, eta ezin danean ahal dana egiteko", Alkarteak metodotzat EZAGUNETIK EZEZAGUNERA –ezagutu ahala gizarteratuz– eslogana hartu izan dau. Halako metodoetan, dana dala, zuhur-zuhur jokatu behar izaten da, izan be errezago dalako bizitzan sakoneko arazoei heltzean, gai bat zer ez dan esatea, zer dan baieztatzea baino.

Edozelan bere, hamar urteko hausnarketa bideratzerakoan, gauzatutako ekintzetara eta argitutako eretxietara jo dogu, euretan izandako jokabidearen memoria dalako gure nortasuna erakusten dauena; zertaz garan kontziente azaltzen dauena. Haril horren inguruan batu ditugu urteotako firuak.

2. IRAKASLE SARTU IKASLE URTEN. KALIGRAFIATIK ORTOGRAFIARA

Asko dira Mendebalden nahiz Mendebalderen inguruan lanbidez irakasle, neu euretarikoa. Gure zeregina irakastea da, euskera eta euskal kultura irakastea be bai.

Irakatsi zer egiten dogu, baina? Geuk dakigun euskera, daukagguna; beste batzuei zelan berba egin esateko ausardia emoten dauena; arauen kodigoa gidari darabilena. Milaka gara halakoak, ikastoletatik hasirik unibertsitaterainokoak.

Holako espirituz sartu geintekezan Mendebaldera. Horretarako indarra euskera batua geuk sortua izateak emon eikean, artean existitu bere egiten ez zanak, 1968an munduratu genduanak. Beharbada, ekintza ezinbesteko horrek adarretatik sustraietara baino kaligrafiatik

ortografiara bihurtu gaitu, Gurutzearen ezkerreko Francoren eskola hareetan ezin hobeto irakasten euskuen kaligrafia pizarran zein pizarrinean; orain, barriz, ortografia arbelean nahiz Xuxenen jorratzen deuskue: leihoa, lehoia, lohia, leia, laia, Loiu; a, e, i , o , u; zuzentasuna, ulergarritasuna, modernotasunagaz batera, behin eta barriz arauetara loturik, deklinabidea, aditza, subjuntiboa eta baldintza.

Giro horretan, euskera jakitea eskolan ikastea zan, ikasgelatik kanpo ezer interesekorik ez balitz legez. Betiko euskera baino barria zan promozionatzen zana. *Etorriko balitz*-i *etorriko bazan* gailenduz; *hamabost urtean*-i, *hamabost urtetan; ez dauka lagunik*-i *ez dauzka lagunik*. Hori guztiori idatzian ze, ahozkoan egin ditugun neurri bakokerien lekuko belarriak dira.

Harik eta geldika-geldika –idazle klasikoakaz batera– txapeldun aitaitak esan deuskun arte, berak *ezin egin dot* esaten dauela eta gazteek *ezin dot egin*; amama moinodunak argitu arte *Gauza izango da* baino *Gauzako da* erabilten dauela.

Halan ohartu gara euskaldun mendebaldetar asko, behar dogula arteragokoen berbeta beheak behera datorrena iturrietatik hartu, izan ez daiten irakasten doguna akerraren adarrak baino okerragoa.

Itaundu deutsagu geure buruari, ezagunetik ez ezagunera bidean, Descartesen argitik ilunerakoan, ea zer dogun ezagun eta zer ezezagun. Azken baten, dakiguna ete dakigun.

Paradigma barriak gidaturik, zientifikoek tresneria barriaz baliatzen dira eta gauza barriak bilatzen ditue. (…), jadanik ezaguna dan tresneria erabilirik, barriz miatzen dabe noizbait so egindako lekuetan (…), objektu ezagunak argi barriaren azpian agertzen dira eta beste ezezagun batzuk batzen jakez horreei. Popper (163:123)

Bilaketan abiatzeko, bidaideak aurkitu izan ditugu hamar urtean, batetik, erakundeak: Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao Bizkaia Kutxa,

Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bilboko udala, Bakiokoa, Lezamakoa, Mungiakoa, Arrietakoa, Getxokoa; bestetik, banan banako pertsonak eta eurakaz, bakarrean baino taldean jokatu izan dogu, eta ohartu gara, taldeko adiskidetasunak kidetasuna dakarrela, auzolana. Zelan ukatu behar egitea lagunak eskatu ezkero? Hara Mendebalde osotzen dogun euskaltzale guztion artean gauzatu doguzan: Jardunaldietako 10 ale orlegiak; Euskalingua aldizkari elektronikoa; Erakundeakaz lankidetzan jorratukoa: Hezkuntza Sailagaz argitaratuko hiru ikas-materialak: Esaldi ereduak; Kantetan; Kontetan. Bakioko udalagaz: Bakioko eskola, Bakioko hiztegia. Lezamakoagaz: Gure Mikel; Lezama gure herria. Ateka aztergaiak bilduman: Euskaldunaren anekdotak; Sorginakaz jantzan; Lauaxeta menderik mende. Izaro bilduman: Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian; Goi mailarako ikasbidea eta abar.

Hamar urteotako ibilbidean, irakasle izatetik ikasle izatera aldatu gara, ezezaguna betiko euskaldunengan topatuz.

Euskaldunen bila euskal herrietara jo dogu, Bakiora, esate baterako, Iñaki Gaminde minidiskaz eta Esther Elgoibar bideokamaraz. Idoia Markaida, Ander Olalde, Juan Luis Goikoetxea eta Begoña Bilbao metodologiaz, azterketaz. Argitaratuko DVDan 6.000 berba –Nik *trebejeria* berbea eurentzat arrunta Bakion ikasi neban–. Hor agertzen diran gurdiaren ganeko testua edo txakolinaren ingurukoa hiztegi zientifikoa da zalantza barik; Patxuelek erroten hotsak hartuta sortzen dituan ahotsak Gandiagaren aliterazinorik aliterazionenak dira. Uste horretan jo genduan Kopenhageko Danmarks Paedagogiske Univertsitet-era Bakioko ikerlan hau erakustera.

Horrez ganera, Bakioko berbetak –edozein herritakoak– kultura garraiatzen dau. Berbeta horretan euskaldunek dihardue, kultura jakin baten bizi diranak goizeko albakotik abemarietako kanpaietara. Guretzat ezagun danetik ezezagun danera bidean, bizkaieraren ederrak jaso ditugu, ostean, egokiturik gizarteratzeko: kantak, kontuak,

pasadizoak, atsotitzetako filosofia, olgetak, beharrak, ezbeharrak, sorginak, laminak, jentilak, Mari Anbotoko, finean, herri baten kultura, tokikotasunetik Euskal Herriko tasun amankomunera garoazana.

Nori berea danez legea, herritarrengandik batua didaktizaturik, digitalizatuta itzultzea izan da osteko eginbeharra, familia gazteei itzultzea, eskoletakoei eskaintzea.

3. EZAGUNETIK EZEZAGUNERA BIDEAN, GUK EZAGUN DOGUNA TEKNOLOGIA ETA METODOLOGIA BE BADIRA.

D EREDUETAKO EUSKALDUN ZAHARRAK ETA EUSKALDUN BERRIAK

Kultura ondarea herritarrei itzultzerakoan, baliabide indartsuak erabili izan ditugu teknologia arloan nahiz metodologiari dagokionean.

"Behin betikoz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukatela konpetentzia, eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik". (Baxok: 1987)

Euskaldun zaharrak euskaldun irautea hain garrantzitsua bada, euskera batuaren ondoan euskalkia bere irakatsi egin beharko da, eta behin euskalkia irakatsi ezkero, ez jakoz maila berean irakatsiko Larrabetzuko neskatilari bizkaiera eta zuberera.

Izan leiteke uste dauenik euskera batua ikasita bizkaieran be alfabetaturik geratuko dala ikaslea, ze euskera bakarra danez, euskalkia aldaera baino ez da-eta, euskera batutik be honenbeste baino aldentzen ez dana. Irakaskuntzan burutu ditugun inkestetako emaitzek, ostera, ezetz dinoskue.

D eredua –halan deitu edo ez euskeraz ikasten dan ereduaz ari gara– bikoiztu egiten da: lehen hizkuntza euskera daben ikasleentzat

atxikitze-eredu bihurtu behar leuke –eta erdialdeko euskalki-gune batzuetan hala gertatzen da–, besterik da euskera estandarretik urrundurik diranetan, esate baterako bizkaieran-; beste alde batetik, lehen hizkuntza gaztelera edo frantsesa dabenentzat, murgiltze-eredu bihurtzen da.

Ezagunetik ezezagunerako metodologian jardutea guk Ausubelen ikasketa esanguratsuaren barruan kokatuko dugu.

Ikasketa esanguratsura jo ezkero, baieztatuko deusku Ausubelek: *"Hezkuntza psikologia guztia printzipio bakarrean bildu behar baneu, honelaxe enutziatuko neuke: ikasketan eraginik handiena daukan faktorea, ikasleak badakiena da. Ikertu hori eta irakatsi kontsekuenteki".* (Ausubel: 1993)

Ikasleari euskerako aldaera hori –dala Mungiakoa, Bermeokoa zein Lekeitiokoa– ez jako arrotz gertatzen, nahiz eta bere osotasunean ezagutu ez. Ezagunetik abiatzen da, beraz.

Murgiltze-eredukoa, ostera, ohiko ez jakon mintzamoldearen aurrean topatzen da –DBHko ikasleaz eta batxilerrekoaz ari gara–. Honek ezin lei hasieran testu osoa ulertu –ulermena eta ez mintzamena eskatuta bere– gai izan arren galdetzen jakon arlo eta itaun jakinei erantzuten. [1]

Edozelan bere, aitatuz gatozena gaurdainoko egoerarik gehienetarako bada bere, ez da zertan halan gertatu geroan jokabideak aldaturik, ze metodologia hau Haur eskolatik beretik jarri ezkero abian, beste jokaleku batekin aurkituko ginateke DBHko bigarren zikloan zein batxilerrean. Adin haretarik erabili izan balira atxikitze-eredukoentzat eta murgiltze-eredukoentzat estrategia desbardinak, euskalkiaren

[1] Erdaldunek euren lehen hizkuntzako maila –2. hizkuntzan murgiltze-ereduari esker lortuko dabena– bermatuta dago, bai eskolaz kanpoko inguruagatik, baita 2. hizkuntzan jasotako ikasketen transferentziagaitik.

jabekuntza normalizaturik aurkitu eitekean, beti bere murgiltzera datorren umearen aldamenean dan etxetiko euskalduna, uretan dabilelako familia erdaldunekoa murgiltzera datorrenean.

Ezagunetik ezezagunerako jokabidea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaratu deuskuzan hiru ikasmaterialetan zehazten dogu, beti be, ahozkoari erabatekoa balioa emonik (GAMINDE; GOIKOETXEA; SARRIUGARTE : 2002).

3.1. Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak

Ezin ahaztuko dogu, ikasmaterial honetara batu diran testuak ahoz jasoak dirala, eta nahiz eta idatziz bere jarri, ahoz eraikitakoa eta idatziz eginikoa berezitasun desbardinetakoak dirala, bai testuari jagokonean –ahozkoan errepikapenak, idatzian ez; ahozkoan etenak, digresinoak, idatzian ideia ordenatuak; baita kontestuari jagokonean be –ahozkoan entzutekoa, idatzian ikustekoa, ahozkoan hitzik gabeko kodeen garrantzi handia, idatzian oso txikia eta abar.

Atxikitze-ereduko neska-mutilei jagokena da, batetik, ulertzea eta, bestetik, berba egitea, jakinik, berba egite horretan berak etxetik dakarren moldea erabiltzea jagokola, entzundako testuetatik dakarrena aberastuz.

Murgiltze-eredukoa, bere aldetik, *Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak* honetako testuen ganean zuzentzen jakozan itaunak erantzuteko gai izango da, baita ikaskideek gelan erabiliko daben ahozko euskalkiko jarduera osoaz jabetzeko bere, eta erabileran berak dakian euskera batura euskalkiko elementuak jasotzen be jakingo dau –hiztegia, esaera eginak, azentua...–. Adibiderako, ikasiko dau bizkaieran badala euskera batuko *lastoaz* ganera *galtzua*, edo euskera batuan ohikoena dan *bi etxe* bezain jatorra dala *etxe bi*, eta halakoak bizkaiera dakienak ez badarabilz euskeratik desagertu egingo dirala.

Hori holan, murgiltze-eredukoak ahozkoan bere eredu nagusia euskera batua izango dau, beti bere, bizkaiera nagusiki ulertu eta aberastasunak atxikirik. Ikasketetatik landa, bizitzan zehar, euskeraz bizi bada, inguruko azpieuskalki hori gero eta bereago bilakatuko jako, seguru asko euskera batuko erregistroari deutsola euskalki sundako beste bat eraikiz.

3.2. Bizkaian zehar kontetan

"Bizkaian zehar kontetan" ikas materialeko ipuinok entzun egiten dira –eta ikusi– eta irakurri. Beraz, oina, funtsa hiztunaren hitzetik jatorku, kontaeratik, jakituriatik.

Hori horretara, irakasleek nahiz ikasleek aintzat hartu beharko leukie ahozkoaren eta idatziaren arteko desberdintasuna. Ahozko berbetan, esate baterako, denborak eta memoriaren mugak diskurtso guztia baldintzatzen dau. Testuotan ideia bera behin baino gehiagotan errepikatzen da, esandakoa ahaztu dalako edo pentsatzeko beta hartu dalako. "Genobeba bialtzen dabe basamortura, basamortura…". (Lekeitio, "Genobeba de Brabante"); "Ba, Jentila, Peru ibili ei zan, kriadu egon ei zan Peru…". (Jatabe, "Peru Jentila"). Guk halakoetan hiztunak esan dauena bere horretan laga dogu ahozkoan daukalako jatorria, eta idatzirako bizkaiera literarioa hartu dogu.

Azken baten, gaur eguneko baliabide teknikoei esker –bideokamarea, minidiska, ordenagailua– lekukoak esana berbarik berba jaso dogu. Azkuek, aldiz, hauxe dinosku:

Lenengo ipuinaren azkenera-orduko ezagutu nuen aren buruko agittoa ta nik orduan esakera bat burutu-arte itxaron ta gero euskeraz josita banan banan papereratzen nituen. (Azkue: 1966)

3.3. Bizkaian zehar kantetan

Hirugarren eskola-material honetan, hizkuntzaren jabe egitea, garrantzitsua eta harrigarria izateaz ganera, oinarrizko prozesu kogniti-

boko parte bere bada, ze haren hazkundeak eragina dauka beste prozesu ebolutibo batzuen garapenean: intelektualak, afektiboak, sozialak...

Hezkuntzako helburuak Komunikazinoaren eta Hizkuntzaren arloan bideratu ahal izateko, behar-beharrezkoa da ezagutzea hizkuntzaren jabekuntzako prozesu normalean diran oinarrizko zehaztasunak.

Guk curriculumeko material jakin bat eskaintzen dogu hemen, batez be, 6 urterik 11rako adinerako, gaitasun komunikatibo eta linguistikoen erabilera zein hazkundea garatzen lagundu dagien.

Eskolako jardueren edukia hizkuntzaren jabekuntzako prozesu normalean oinarritu dogu, hau da, belaunaldirik belaunaldi jatorkun berbeta bizian, jakin dakigulako hizkuntzaren jabekuntzarako testuingururik egokiena –metodorik aproposena, beraz– guraso eta adinekoekin era naturalean, interakzinoan jardutea dala.

Atondu dogun materiala eskolarako egin dogu, oharturik irakasleak eta eskolak funtsezko zeregina dabela umeen trebetasun linguistikoen zein komunikatiboen garapenean.

4. HURBILETIK URRUNERA BE BADA EZAGUNETIK EZEZAGUNERA

Sinesgatx egiten jako norberari hainbeste urtean jo eta ke azaltzen jardunik, euskera batuaren oinean eta soinean euskalkiak dirala, oraindik orain gure hamazortzi urteko gazteek –eta ez hain gazteek– bizkaieradunek *galdetu itaundu* baino lehenago erabiltzea; *jausi* dagoanik ahaztuta *erori* baino ez erabiltea; *etxe bi* esaten dabenek *bi etxe* baino ez aintzat hartzea, hau da, ezagun hurrekoaren ordez ezezagun ikasia baliozkoagotzat hartzea.

Ikasgelak –erderek ekarren bultzadari jarraituz– urrunekoa bihurtu deusku hurreko, eta hurrekoa ez askorako. Axular handiarekin hasi

gara edo Lizardi olerkari betikoarengandik. Lauaxeta, ostera, oraintsu deskodifikatu dogu eta Frai Bartolome goren mailakoaz bere obra irakurri barik idatzi da. "Urruna urre, hurrekoa lurre".

Ondorioz, eta jokabide orokor moduan, bizkaiera kontsideratu da norberak eta inguruak ezagun dauena, eta zer egin da? Ba, inguruko horixe erabili ez, batua idatzi gura danean. Hau da, norberena ez dana hartu batutzat, ikasi dana, urruna. Horretara, ahotan egunero darabilen formen izaeraz jabetu barik dirauela, praktikak berak aldentzen dau ahozko ezagunetik urrunekora. Bizkaieran alfabetatu barik dagoalako Arratiako euskaldunak ederto baten darabilen "Alabea gaixorik dagoanA lez…" bazterturik, euskera estandarreko "Dagoen legez" baino erabilten ez badau, formetarik batek galtzaile urtengo dau; euskera batua baino euskera mehaztua erabiliko dau. Honetan, beti be, badira beste faktore batzuk aintzat hartzekoak, euren artean Federiko Krutwigek aitatzen ebana, hau da, hizkuntzako elementuek ikasiak diranean prestigioa irabazten dabela. Baieztatzen etorri garanaren ondorioz, baztertu egin dira *ondo* eta *hobeto*, *ongi* eta *hobeki* hobetsiz. Urruna eta ikasia –oker ikasia– hobetsi da. Baina, hizkuntzak posibilitate biak eskaintzen zituan, *-ki* batetik eta, bestetik, *-to/-do*. Begiratu deiogun Mitxelenak Villasanteri egindako oharra:

> *No obstante lo dicho sobre el carácter vizcaíno del sufijo -to, -do, voces como ondo y hobeto, aunque en concurrencia, llegan hasta Oyarzun, si no más lejos.* (Villasante (1974:96).

Parametro aldaketak, baina, –Mendebalde Kultura Alkarteko kideak, beste askogaz batera– hurrekoan oinarriturik urrunekoan eragitera eroan gaitu, geurea be besteen plazaraino garraiatzera. Arterago *lortu* aditza euskera unibertsalera zabaldu zan modu berean zabaldu da *ostean* edo *artean*, edo *gura* edo *ataza*. Horretarako, lehenengo geure lurrean egin dogu jorra.

5. ABIAN DIRAN TREN BI DIRA EUSKALKIA ETA EUSKERA BATUA

Irudietara jota, bizkaiera eta euskera batua bultzi bi dira, helmuga berera doazenak, biak be ibilian dabiltzanak; ez dira bata geldirik dagoan euskalkia eta bestea –euskera batua– dabilena, eta ondorioz, bizkaiera anestesiaturik euskera baturako materialak atarateko ontzia dana, bizkaiera be badabil-eta.

Bizkaiera noz erabili ohi da ikerketa objektu legez eta noz objektu izateaz ganera berbeta behikular modura? Beharbada adibidez baliatuta ulertu eragin geinke errezen:

Bizkaiera eta Biblia parekatzen baditugu, ikerketa objektutzat hartuko liratekela ohartuko gara:

Bonaparterentzat bezala, Biblia hizkuntza esperimentu da Olabiderentzat. Bonaparteri –nahiko esker nekez emongo deutsagunari– ez eutsan interesatzen Bibliak berak –honen erabilera guztiz instrumentala egiten dau–, ezta herriaren zerbitzura jarteak be. Besteak beste, oso ale gitxi argitaratzen zituan itzulpen bakotxeko, adituentzat edo liburutegietarako gehienbat. Horren jakitun zan Duvoisin:

> *Biblia hau jakintzaren asmotan itzulia da euskarara: Nire lana jakintsuentzat da, hizkuntza ikasten jo eta su ari diren jakintsu ugarirentzat…Jakintzaren onetan hartu dut lan hau.* (Irizar: 2004).

Ostera, Biblia legez Bizkaiera berbeta behikular modura hartuko litzateke beste egoera honetan:

Leizarragak Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria itzuliz, Europako hizkuntza handien mailan jarri eban gure berbeta txikia. Halanda guzti, helburu erlijioso garbiz buruturiko proiektua da. Halan idatzi eban:

> *Nik nuen esperantza eze moien hunez Jainkoaren hitz purak ukanen duela sartze eta avanzamendu Heuskal-Herrian.* (Irizar: 2004).

Proiektu osoaren helburuaren arabera, ahalik eta herrikoiena izan behar eban Leizarragaren itzulpenak.

Hemen bizkaiera berbeta bizia dan neurrian erabilten da, jorratzen da, ikertzen da; ez da euskera baturako ekarria egin leiken heinean bakarrik interesgarri, edo ikasketa filologikoetarako intereseko dan neurrian ikergai legez soilik.

Desbardintasuna honetan dago: Duvoisinen Bible Sainduaren 250 ale atara zituan Printzeak, eta antza danez, horreetatik ez zan ale bakar bat be geratu Euskal Herrian.

Guk herritarrengana jo dogu dakiena eta daukiena jasoten, ondorik ikertu, hausnartu eta didaktizaturik eskolara, familietara bihurtzeko. Ez da jarduten, beraz, ikerketak bere burua justifikatu dagian bakarrik.

6. EUSKALKIDUNAK ANFIBIOAK GARA. EUSKERA BATUAREN EREMUA ETA BIZKAIERAREN EREMUA

Argi dago, pertsonok irudiak erabili beharra daukagula abstrakzinoari "forma" emoteko, bizkaierari irudi agirikoa, begibistakoa erakutsi egiteko.

Anfibioa –zentzu jatorrizkoan– uretan eta uretatik kanpo bizi daitekena da; euskalkia dakiena euskera batuaren eremuan zein bizkaieraren eremuan bizi leitekena da.

Zentzu zabalduan, ostera, anfibioa da zapoaren eta ugelaxoaren erakoa, gaztaroan –larba-aldian– uretan bizi izan dana –bizkaieran–

zakatzak eukiteagaitik, eta gero heldua danean, lehorrean, arteko organoak galdurik birikadun bilakatzen dana.

Hara puntu honetan oinarrizko eretxi desbardintasuna euskeraren barruko endoglosian. Euskal hizkuntzaren aztertzaileon artean ez gatoz bat. Batzuen eretxiz, anfibioaren zentzu zabaleko izaera dagokio euskalkia-euskera batua dikotomiari. Hots, umezaroan euskalkian bizirik –zakatz eta guzti uretako dalarik– heldutasunean euskera batuan dirauena –birikadun ugelaxoak legez–. Nik uste dot, ostera, euskalkiaren eta euskera batuaren arteko lotura, diglosia ulertzeko, anfibiotasuna zentzu jatorrizkoan hartu behar dala, gaztaroan nahiz heldutasunean orain euskera batuaren eremuan bizitekoa eta hurrengo unean euskalkian. Asko dira horretarako arrazoiak eta datuak.

Mendebalde Kultura Alkarteak be anfibiotasuna jatorrizko zentzuan ulertzen dau. Horrexegaitik dihardu bizkaieraren jorran umeei begira nahiz adinekoei so, bai materialgintzan, baita hausnarketa teorikoetan bere.

6.1. Euskera batuaren eremua

EEuskaltzaindiak euskera batua oinarritze eta zedarritze bidean, Hiztegi Batua be garatu dau. Bertan, hitzen zerrendan euskalkiko informazinoa be eskaintzen dau, era horretara, literatura euskalkien ondarea be euskera batuan sartuz, euskalkietako berbak euskera batukoak diralako. Orain, euskalki marka daroen berba horreek erabiliz idatzi daiteke euskera batuan. Eta horixe batu molde hori dala uste dogu mendebaldetarrok egin dagigun komeni dana.

Horrenbestez, euskera batuan jokatu gura dauenak eremua zehatz finkaturik dauka. Halanda guzti, ez da inongo bermerik bizkaierako diranak edozein idazlek erabili dagizan. Horrexegaitik da behar-beharrezko nork bere euskalkiko euskera moldea ez baztertzea.

Halanda ze, euskera batuan bertan gabiltzanean be Mendebalde-

kook berben artean lehen terminotzat euskalkikoa hartu behar dogu eta ganerako euskalkietakoak sinonimotzat, hurrekotik hasirik urrunekora joteko. Hau da, lehen terminotzat *berba* eta ez *hitz*; lehenengotzat *itaundu* eta ez *galdetu*. Horixe izan da Mendebaldetarron filosofia.

Kontzeptu abstraktoa era plastikoan adierazteko, Kasildo Alkortak eta Manu Ormazabalek azaldu ohi daben pasadizoa dator harira:

Pedro eta Periko Bizkaiko euskaldunak Beasainera joan jatzuz beharrean. Eguneko lana fabrikan amaitu ostean tabernara heldu dira:

– Arratsaldeon! Baltz bi mesedez!

– Bizkaitarrak, ezta? -zerbitzariak.

– Zelan konturatu haz?

– Guk *beltz* esaten diagulako, ez *baltz*.

– Zentaila makarikatua! Bihar ez dozak konturatuko, ba!

Bigarren egunean:

– Beltz bi mesedez!

– Bizkaitarrak ezta? –tabernariak.

– Zelan konturatu haz, ba?

– Guk *bi beltz* esaten dugulako, ez *beltz bi*.

– Hau miseria! Bihar ezetz igarri guri!

Hirugarren eguna:

– Bi beltz mesedez!

– Bizkaitarrak, ezta?

– Baina zelan konturatu haz, ba?

– Guk *faborez* esaten diagu, ez *mesedez*.

Hona hemen euskera batuan berba egiteko eredu bi.

Geuk ez badogu honetan indar egiten, besteek sistematikoki eurena dabenez aurrenengo, bizkaieraren erabilia galdu egingo dau euskerak. Geu gara nor *neba-arreba* erabilteko edo *horma*. Bizkaierakook erabili ezean, euskera batuak galdua dau *neba-arreba*, ez galdua hizkuntzatik, bai hizketatik.

6.2. Bizkaieraren eremua

Halantxe idazten deusku (Villasantek: 1988):

> *"Euskaltzaindiak, esate baterako, ez du gaizki ikusten bizkaiera irakats dadin, baina nahi du literatur tradizioko bizkaiera irakats dadin, eta ez edozer gauza, bizkaieraren aitzakiaz. Gainera, parte hartu du Jaurlaritzak atera duen liburuan: Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza."*

Euskalkiaren eremura etorririk, Hiztegi Batuko berbak –bizk. laburduradunak– bizkaierarako idazkera be emonta datoz; batasuna dakartsie euskalkiari ze, Euskaltzaindiak arautu dauen bizkaierarako hitza bardin erabiliko da euskera batuan nahiz bizkaieran.

Beste alde batetik, egokitasunak argituko deusku testuak sortzean zenbateraino jo euskera batura eta zenbateraino euskalkira, beti be testu bakotxaren autonomia jagonik.

Dana dala, euskalkiko ikuspuntutik begiraturik, garrantzitsuena da ohartzea bizkaierak badaukala berea dauen eremua, euskera batuak berea dauen lakoa ze, bizkaierazko eta bizkaierarako dira:

– Aditzak, *deutsut* lakoak, euskerakoak diran arren, batuaren eremutik kanpo geratzen diralako.

– Berbak bizkaierako forman: *barri; urten; itxi…*

– Bizkaierako baino izango ez diranak: *aurki* (Bai aurki! zentzuan)

Arrazoi argia izan leiteke artetxuan aitatua euskalkia ikasi eta erabilteko, dakigun moduan jakinik, alfabetatu bako euskalkiak leku urria leukakela euskera batuan.

XXI. mende hasieran bizi dan euskalduna ohartzen da, entzuten dauen euskera noz dan berea, euskalkikoa, eta noz euskera batu, barri edo eskolakoa. Apurtxu bat sakonago arakatu ezkero, ostera, ez da gauza baieztatzeko berak bizkaieraz darabilen *daigun* gipuzkerakoa be badan, edo bi zenbatzailea *bat* zenbakiaren moduan atzean jartea arrunta zala Etxepare, Leizarraga edo Oihenartentzat.

Euskaldun arruntari gertatzen jakon berbera jako gertatzen irakasle nahiz testugileari, euskera batukotzat erakusten dituan elementu ugari bizkaierako dira, edo bizkaierakotzat azaltzen dituanak euskera batuko. Halantxe pasatzen da *hots* berbarekin, zein euskera batutik etorrikotzat irakasten dan *kanpaiotsa* etengabe euskalkian entzun arren.

Arterago esana laburturik, argitu geinke, bizkaieraz idazten nahiz berba egiten dauenak, aurre-aurrean behar dauela inguruan bizi diran berben hiztegia nahiz gramatika; euskerarako edonondik etorriak be onak izanik, bizkaierazkoak hartu dagizan lehenengo.

7. IDIOLEKTOTIK DIALEKTORA BE BADA EZAGUNETIK EZEZAGUNERA

Aita Luis Villasantek (1988) dinoskunez, euskalkia landu behar bada, euskalki horrek bere lekua beharko dau ezagunetik ezezagunerako bidean, norbere etxeko berbetatik hasirik euskalkiko aberastasunez jantzi artean, edo baita euskera batukoz hornidu artean be.

Halantxe dino Weinreichek: “In the present study, two or more languages will be said to be *in contact* if they are used alternately by

the same persons. The language-using individuals are thus the locus of the contact". (Uriel Weinreich, 1. orr.)

Beraz, euskalkia eta batuaren arteko ukipen gunea norbanakoarengan jarten dogu, hau da, bizkaiera eta euskera batua darabilzan euskaldunarengan. Ez dogu horrekin esan gura ez dala beharrezko bizkaieraren euskalkitasuna aztertzea edo euskera batuaren izaera jorratuko ez dogunik. Dinoguna da, azken baten, euskalkien arteko definizino geografikoa eta euskera batuaren eraikitze jokabidea, metodoak eskatzen deuskulako lantzen dogun arren, kontaktu horrek pertsonarengana dakarren eragina ikertzeari eragingarriago eretxi deutsagula.

Berez, noraino izan leiteke zilegi elebitasunaz, elebakartasunaz edo diglosiaz berba egitea.

Elebitasunaren ideiak portaera indibidualari jagokon egoerarekin dauka zerikusia. Printzipioz, ezin baieztatu daiteke erkidego elebidunak diranik, bai, ostera, norbanako elebidunak. Beste berba batzuetan, jarrera indibidualeko kontzeptua izateaz ganera, elebitasunak botere zein prestigiozko estatus bera eskatzen dau berbeta bietarako

Martinet-ek dinoskunez:

> *La idea de que el bilingüismo ha de referirse a dos lenguas en situación de igualdad está tan extendida que algunos lingüistas han propuesto el término de "diglosia" para designar una situación en que una comunidad utiliza, según las circunstancias, un idioma más familiar y de menos prestigio o bien otro más literario y más cuidado.* (Martinet:1967)

Diglosiak funtzinoen anizkoitzea suposatzen dau, elebitasunean, ostera, aldaera linguistiko biak funtzino berberak beteten ditue, hau da, bitzuak dira erabiliak harreman formaletako esparruan eta erlazino ezformaletan.

Esparruaren kontzeptua –egoerarena–, Joshua Fishman-ek arakatu eban ikerketa oso ezaguna dan *Bilingualism in the Barrio* (Fishman: 1968). Fishman-entzako abiapuntua itaun hau izan zan: Nork egiten dau zein hizkuntza, -gure artean bizkaiera edo batua- norekin eta noiz? Hiztunek berbeta bi darabilezanean, jakina da ez dabezala biak egoera guztietan erabilten: egoera jakin batzuetan bat erabiliko dabe, eta besteetan bestea. Arestian aitatu dogunez, Ferguson-ek inplikaturiko hizkuntzen aldaeretan egin eban indar bere lehenetariko artikulu baten, gaur klasiko bilakatu danean, non garatzen dauen diglosia nozinoa (1959). Sortu eban diglosiaren definizinoa, hiztunen erkidego baten erabilitako sistema beraren bi barietatez ari zan: bata formala, A (alta) deitua, eta forma herritar edo lekukoa, B (baxua) eritxona. Barietate bakotxak bere funtzinoak beteten ditu hiztun erkidegoan. Funtzinook doaz Ako diskurtso politikoetatik hasirik Bko lagunarteko barriketetaraino. Hizkera formaleko estiloak askoz prestigio jasoagoa dauka, sarritan lotua funtzino erlijiosoekin eta ondare literarioagaz zein historikoagaz. A aldakia estandarizatuta dago, baita nazinoartean bere, nahiko egonkorra da eta ez da haurtzaroan ikasten lehen berbeta moduan, geroago baino. Azkenik Ferguson-ek defenditzen dau A aldakia B baino gramatikalki konplexuagoa izan ohi dala.

8. GURE DIGLOSIA IRAZIA DA

Irazia deritxogu, ehundegian ehuna egitean legez gauzatzen dalako, euskera batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak bata besteari harien artetik bilbea igarota

Horretarako, euskera batua euskera estandar idatzitzat hartzen dogu, ez literariotzat, oker ulertu ez daiten. Arrazoia da, literarioan euskalkia jasoago be agertu daitekela, beti euskera batuak A hizkuntza moduan funtzionatu barik euskalkia dan B hizkuntzaren aurrean. Geroago be barriz aitatuko dogun aipu hau jatorku harira:

> *"Idazmota edo jenero batzuetarako orain ere, eta agian luzarorako, egokiagoak gerta daitezke euskalkiak euskara batua bera baino, … "* (Villasante: 1988).

Baita indartu besterik egiten ez dauen hau:

> *"En lo propiamente literario –ya desde Aranzazu se habla de lengua escrita, no de lengua literaria, por si acaso–, acaso sea donde más se note una como rigidez, al menos en algunos géneros, que todavía no ha sido domeñada".* (Mitxelena: 1985)

Euskalkia bera, bestalde, hizkuntza normalizatu, uniformatutzat hartzen da –guztiz halan ez bada be–, ez, beraz, inongo herriko, ez ezelango amaren berbetatzat.

> *"… las variedades designadas como literarias por BONAPARTE representan formas de lengua normalizadas y, por consiguiente, uniformadas".* (Michelena: 1985).

Argitasunerako, jo daigun probentzalaren kasura. Ertaroan berbeta estandarra zan probentzala, tradizino literario joriduna, baina Frantziako nazio-estatuaren eratzeak *langue d´oil langue dó*ci nagusitzea suposatu eban. Urte luzez egoera diglosikoa sortarazi eban Probentzan, non frantsesa zan A barietatea eta probentzala B, horretara, Ferguson-en tipologia osoki betez. Baina gerora, probentzala indarra galduz joan zan heinean egoera desbardina sortu zan.

Txillardegik euskal diglosia proposatzen dau ahotan darabilgun kontzeptua argitzeko. "Baina euskalkien aberastasuna eta ñabartasuna baliatuz, geronen EUSKAL DIGLOSIA antolatu behar dugu (oraingoan Ferguson-en adiera eman nahi diot hitz higatu eta arriskugarri horri). (…). Berariaz erabiliko dut hor "euskal diglosia" hitz bikotea. Geure endoglosia hori *euskararen barruan antolatu* behar baitugu, erdara kanpora aldeko funtzio hutsentzat utziz". (Txillardegi: 1990)

Tradizinoz, euskalkiko forma hutsez jardun gura izatea, beti gertatu izan da esparru ugaritan –batez be ahozkoan–, baina euskalki literariora joten dogunean, euskalkiko forma hutsez jardun gura izatea, teorikoki kontraesana izateaz ganera –euskalkia arestian baieztatu moduan heteronomoa dalako eta diglosikoa– euskera murriztuz jokatzea izango litzateke, ze beste euskalkietatik euskera batura ekarria galtzeaz ganera, euskera batuak hogeita hamar urtean modernizazinoa ezagutzean eregitako hizkuntza molde asko galarazoko litzateke-eta. Euskera batuak, bere aldetik, euskalkiko aberastasunak bereganatzea diglosia iraziaren koherentzian finkatzen da, batzea sakabanaturiko hizkuntzatik biltzea dalako.

Euskera batutik euskalkirako ubideak zabalik euki behar dira eta ubideak zabaltzeko giltza euskera maila bakotxean alfabetatzea da.

Batuak bizkaieratik zenbat eta gehiago edaten dauen estandarra bizkaieratuago agertuko da.

Mendebalde Kultura Alkarteko –kide zein lankideok– aurrera daroagun bizkaiera, diglosiaren eta bilinguismoaren arteko balantzan mogidu da –diglosian, arlo batzuetarako euskera batua erabili dogunean eta beste batzuetarako bizkaiera; elebitasunean bizkaiera eta euskera batua guztiz trukagarri bilakatu ditugunean.

Gurago bada, diglosia berbea mingorra danez, esparruen kontzeptua geureganatuko dogu, Fushmanena, hau da, "Nork egiten dau zein hizkuntza norekin eta noz?" Hiztunek berbeta bi darabilezenean, jakina da ez dabezela biak egoera guztietan erabilten; egoera jakin batzuetan bat erabilten dogu eta besteetan bestea.

Edo nahiago bada, -eta adosgarriena berau dala dirudi- Euskal Diglosia Irazia joko dogu teoriarik koherenteentzat.

Bizkaieraren eta euskera batuaren ukipen gunea norbanakoarengan jarten dogu, behin banan darabilzanarengan, eta horretara adie-

razten dogu lekuan lekuko euskera, euskalki literarioa eta euskera batua Euskal Diglosia Irazian, teilakatuan, txertatuan bizi dirala eta idatzian ardatz nagusia euskera batuak daroala, nahiz eta literaturan, adibiderako, euskalki literarioa jasoago agertu daiteken eta lekuan lekukoa jagokon esparruan egokiago, hizkuntzan mailak eta erregistroak dagoz-eta.

Diglosia Irazi honetan ulertzen dogu, bizkaiera literariorako elementu bila jo daitekela euskera batura edo azpieuskalkirako bila bizkaiera literariora edo euskera baturako beste bietara. Horrexetarako behar da euki irazkai, txertagai bakotxa alfabetatuta.

Azken baten, finean eta buruan, erdera nagusitzen dan giroetan jokatu behar dogu euskaldun euskaltzaleok, euskaldunen gune trinkoak sortzeko ahaleginetan, bizkaierazko hiztun bakotxa ugalaxo izan daiten eta trenbideko bultzi biak parez pareko bidean bizi-bizi ibili daitezan.

9. BIBLIOGRAFIA

AKESOLO, L. (1989): *Idazlan guztiak*. Karmel Sorta. Larrea-Zornotza.

AUSUBEL, D.P.; NOVAK, J.D.; HANESIAN, H. (1993): *Psicología evolutiva*. México. Trillas.

AZKUE, R. M. (1969): *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca.

BAXOK, E. (1986): "Euskara euskalkiak", in Nazio eta herri mailako barietateen erabilera. ASJU, XXVIII.

BERRIATUA, I. (1982): *Ikasle Israelen*. Oinarrizko Euskarazko argitalpenak. Euskal Kultur Mintegia. Iberduero.

BILBAO, B; GAMINDE, I. (2005): *Lezama gure herria*. Zorrizketan Euskera Alkartea. Lezama.

GAMINDE, I.; GOIKOETXEA, J. L.; SARRIUGARTE, I. (2002): *Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak.* Eusko Jaurlaritza.

GAMINDE, I.; GOIKOETXEA, J. L.; ELGOIBAR, E. eta lankideak (2004): *Bizkaian zehar kantetan.* Eusko Jaurlaritza.

GAMINDE, I.; GOIKOETXEA, J. L.; ELGOIBAR, E. (2005): *Bizkaian zehar kontetan.* Eusko Jaurlaritza.

GOIKOETXEA, J. L. (2003): *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian.* Euskaltzaindia. Bilbo.

IRIZAR, R. (2005): "Euskarazko Bibli itzulpena atzo eta gaur", in Hemen. Euskal Herriko Erlijioso Bizitzaren Teologi Institutua. Gasteiz.

MARTINET, A. (1967*): Eléments de linguistique générale.* Paris. Armand-Colín.

POPPER,K.R. (1963): *Conjetures and Refutations.* "The Growth of Scientific Knowledge", in ¿Existe Dios? (1979): Madrid. Cristiandad.

TXILLARDEGI. (1990): "Soziolinguistika egunak", in Hizkuntza Hezkuntza. Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitatea.

VILLASANTE, L. (1974): *Palabras compuestas y derivadas.* Oñate. Editorial franciscana Aranzazu.

VILLASANTE, L. (1988): *Euskararen auziaz.* Aranzazu. Colección Eleizalde.